

## Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailari:

(Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010-Gasteiz)

Behean sinatzen duenak,..... jaunak/andreak, NAN zkia ..... eta jakinarazpenetarako helbidea..... duenak, herria:....., PK:....., honako ALEGAZIO hauek egiten dizkio egunotan jendaurrean dagoen Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialari (EEBB LPS), non Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eskala handiko dozenaka zentral eoliko eta eguzki-poligono fotovoltaiko ezartzea aurreikusten den:

1. Euskal Autonomia Erkidegoa lurralde oso urbanizatua da eta metropolizazio- eta kolmatazio-prozesu gero eta handiagoaren mende dago. Testuinguru horretan, EEBB LPSan aurreikusitako zentral eoliko eta eguzki-instalazio handien garapenak hainbat ingurumen-adierazle okerrera egitea ekarriko luke, **lurzoruaren artifizializazioak** bereziki. Planaren Ingurumen Azterlan Estrategikoak berak onartzen duenez, **"ingurumen-eraldaketa (eragin) nabarmena gertatuko da", "lurzoru natural/landatarreko azalera garrantzitsuak okupatzearen ondoriozko inpaktu negatiboaren garrantzia dela eta"**. Onartezina da ustezko "trantsizio energetikoaren" izenean **balia biderik baliotsuena, urriena eta berriztaezina sakrifikatu nahi izatea: lurraldea.**

2. EEBB LPSa bateraezina da **landa-eremuaren eta elikadura-subiranotasunaren defentsarekin**. Plana garatzeak eragingo lukeen laborantza-lurren galera garrantzi bereziko gaia da, **landazabaleko nekazaritza- eta abeltzaintza-eremuetan ehunka hektarea hartzen dituzten energia fotovoltaikoko instalazioen aurrikuspenei dagokienez nabarmenki**. Honi buruz, azpimarragarria da Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroen arabera lur-eremu horiei begirako irizpide orokorra **"lurzoruen gaitasun agrologikoa mantentzea"** eta **"nekazaritza-ekosistemak eta -paisaiak babestea bermatzen duten jarduerak sustatzea"** izan behar dela, eta gaur egun Euskadin kontsumitzen diren elikagaien % 4 baino gutxiago ekoizten direla gure erkidegoan. Aurrekoarekin batera, EEBB LPSaren garapenak **udalerrri eta landa-inguruneak despulatzea eta pobretzea** eragingo luke, makro-proiektu horiek ezartzeko euskarri fisiko hutsa izango bait lirakeke. Landa herriguneeen eta sakabanatutako etxaldearen ingurumenaren balio naturala da haien biltzailerik onena, eta, beraz, horren zaintza eta kontserbazioa **komunitate horien biziraupenerako faktore** bat da.

3. EEBB LPSa bateraezina da **naturguneak eta basa-espezieak** babesteko araudiekin. Bereziki, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearekin eta hegazti nekrofagoak kudeatzeko planekin nahiz **biolibertsitatea** eta **korridore ekologikoak** babesteari buruzko foru-aginduekin. LPSaren Ingurumen Azterlan Estrategikoak berak **"larrizat"** jotzen du aurreikusitako instalazio eolikoek **"basa-faunaren hilkortasun zuzenagatik"** eragingo luketen inpaktua (hegazti harrapariak eta saguzarrak), eta **"ingurumen eraldaketa (intzidentzia) nabarmena"** gertatuko dela ohartarazten du **korridore ekologikoen, floraren eta paisaiaren gaineko inpaktuaren ondorioz**. Praktikan, soilik Natura 2000 Sarean integratutako Naturgune Babestuak eta herrigune bakoitzaren inguruan 500 metroko erradioko baretze-eremu txiki bat

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duen pertsonak **EEBB LPSaren onarpena ezesteko eskatzen du, bai eta oposizio garrantzitsua eragin arren gaur egun izapidetzen ari diren zentral eoliko eta instalazio fotovoltaiko handien proiektuak geldiarazteko ere.**

.....n, 2023ko..... aren ..... n.

hartzen ditu EEBB LPSak zentral eoliko eta eskala handiko eguzki-instalazioen ezarpenetik salbuetsitako "bazterketa-eremu" gisa. **Beste edozein tokitan instalazioak jartzeko aukera ematen duenez, sarbideen eta argi-indarraren ebakuazio-lineen inpaktua ebaluatzen ez duenez, eta horrez gain gaur egun plangintzatik kanpo izapidetzen ari diren proiektuek aurrera egiten jarrai dezaten ahalbidetzen duenez, EEBB LPSak lurraldearen antolamenduak bete behar duen eginkizun zuzentzaileari uko egiten dio eta gure mendi eta haranen bizitza-, kultura- eta paisaia-zentzua galtzea ekarriko luke.**

4. **Energiaren kontsumoa murriztea** — EEBB LPSaren aurrikuspenetan agertzen ez den gauza— eta **tokiko autokontsumorako energia berriztagarrien sorkuntza banatuan eta deszentralizatuan oinarritutako estrategia alternatiboak garatzea**, askoz ere neurri eraginkorragoak eta zentzuzkoagoak izango lirakeke bizi garen lurraldearen mugetara egokituriko eredu baten oinarriak jartzeko orduan. Energia aurreztea **jarduera-ildo ukaezina** da Euskadin, eta energia berriztagarrien hedapena **eskala lokaleko ekintzetara** bideratutako eredu baten bidez egin behar da, hau da, **EEBB LPSan lehenesten diren eskala handiko instalazio eoliko eta fotovoltaikoen ezarpenaren guztiz kontrako eredu baten bidez**. Bestela, zenbait enpresa energetiko handiren eta inbertsio-talderen mesederako estatu espainiarrean nagusitu den eredu jasanezina —**sozialki, ekonomikoki eta ekologikoki jasanezina dena**— errepikatzea darama honek.

5. Prozedurari dagokionez, EEBB LPSaren jendaurreko informazioaren izapidea maiatzaren 28ko udal- eta foru-hauteskundearen kanpainarekin batera egin da, **parte-hartze publikoari eta eragindako udalen eta diputazioen eskuhartzeko aukerari kalte eginez**. Horri gehitu behar zaio Planaren onarpenak tokiko erakundeei derrigortu egingo liekeela udal-plangintzan zentral eoliko eta instalazio fotovoltaiko handiak ezartzeko lurren erreserbak egitera, baita ondorio kaltegarriak jasango dituztela iritzi dutenean ere. Hori **udal-autonomiaren aurkako eraso bat** da. Bestalde, EEBB LPSak bere nagusitasuna ezarri nahi du eskualdekako **Zatikako Lurralde Planen** gainetik, hauek de facto ezerezean utzita. Eta hori dena gutxi baliz, LPSak xedatzen du Eusko Jaurlaritzak **"Interes Publiko Goreneko Proiektutzat"** jotzen dituen zentral eoliko eta poligono fotovoltaikoen egitasmoak zuzenean ezartzeko eremu berriak **premiatzeko prozedura** erabiliz onartu ahal izango dituela, hots, **"Tapia Legea"** izenarekin ezaguna den Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko 10/2021 Legeaz baliatuz. Lege hori indargabetzea eskatu dute ordea erakunde sozial askok, izaera **antidemokratiko** nabarmena duelako.

SINATUA:.....